



M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDAL
AGURGARRIAREN IDAZKARI
NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 1ean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO UGALDETZO AUZOKO JUANSENDO KALEAN SANEAMENDU HODIEN ORDEZKATZE PROIEKTUKO OBREN BEHIN BEHINGO ESLEIPENA BEHIN BETIKO BIHURTZEA.

2009ko martxoaren 10ean Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, “Oiartzungo Ugaldetxo auzoko Juansendo kalean saneamendu hodiak ordezkatzeko proiektua” obrak behin behingo izaeraz Construcciones Alzola S.A.ri esleitzea erabaki zuen, jendaurrean ezagutzera eman gabeko prozedura bidez.

Construcciones Alzola S.A. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Oiartzungo Ugaldetxo auzoko Juansendo kalean saneamendu hodiak ordezkatzeko proiektua” obrak behin-betikoz Construcciones Alzola S.A. enpresari (NIF-A-20035671) esleitzea erabaki da. Kontratuaren prezioa 60.686,06 €koa da (BEZ kanpo). BEZa 9.709,77 €koa da. Beraz, kontratuaren prezioa guztira 70.395,83 €koa da.

Bestalde, egikaritze epea 3 astekoa da eta obran 6 pertsona okupatuko ditu, 3 enpresan integratutakoak eta 3 kontratazio berrikoak.

Halaber, proposamenak aurkeztu baina esleituak gertatu ez diren enpresei, proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabaki da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Construcciones Dumboa S.A.
- Otegi-Gaztañaga S.L.
- Asfaltos Orsa S.L.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren batean.

